



## HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA ESKOLA ORDUETATIK KANPOKO ESPARRUAN

Jaime Altuna

*Urtxintxa*

Helbide elektronikoa: [jolasak@urtxintxa.org](mailto:jolasak@urtxintxa.org)

### AISIALDIA ETA ESKOLA ORDUETATIK KANPOKO JARDUERAK: KOKAPENA ETA ZEHAZTAPENAK

Tradizionalki ikastetxeek haurren aisialdian esku-hartze handirik izan ez badute ere (eskola orduak aisiarako orduen antitesia izan dira, lanerako orduen pareko), azkenaldian, eskolek aisialdiko eragile gisa duten pisua gero eta handiagoa bihurtu da. Esku-hartze hori eskola orduetatik kanpoko ekintzetan (kirola, musika, antzerkia...) eta bestelako aisialdi jardueretan gertatu da (udalekuak, egonaldiak, ludotekak...). Horrekin batera, azken urteetan, euskararen normalizazioan lanean ari diren eragileek lan horretan aisialdiak duen garrantzia azpimarratu eta hizkuntza geletatik ateratzeko beharra azpimarratu dute. Dena den, asiaren kontzeptua eta egoera zehaztean, nahasketa handiak gertatu dira eta, maiz, gehiegi definitu gabeko esparruaz aritzen gara. Sarrera gisa, beraz, kontzeptu zehaztapen batzuk egingo ditugu zertaz ari garen hobeto ulertzeko.

### ZER DA AISIA?

Aisiari buruzko definizioa zehazteko hiru dimentsio aipatu behar ditugu: denbora, bizipen subjektiboa eta jarduera mota.

### 1. AISIAREN DENBORA

Lanak edo bestelako beharrak betetzen ez duen denbora da; laneko betebeharretatik libre eta norberaren esku dagoena alegia. Aisia eta denbora librea ez dira gauza bera. Aisiarako beharrezkoa da denbora librea, baina horrekin ez da nahikoa, laneko denboratik kanpo daukagun denbora guztia ez baita aisia.

### 2. AISIAREN BIZIPEN SUBJEKTIBOA

Dimentsio honen arabera, aisia edozer gauza eginda ere aukeraketa autonomoa, burutzapen librea eta gozamenarekin, atsedenarekin eta dibertimenduarekin lotuta dauden behar pertsonalak asetzeko denbora librea da.

### 3. AISIAREN JARDUERA MOTAK

Aisialdiaren bigarren mailako elementu definitzaileak dira jarduera motak. Edozer jarduera aisialdiko jarduera izan daiteke, betetzen duen denbora sozialaren arabera eta nagusitzen den jarrera subjektiboaren arabera. Aisialdiko jarduerak kontuan hartu beharrekoak dira, ekintza zehatz batzuen bidez gauzatzen baita aisialdiaren bizipena. Jarduera horiek aisiaren bizipena ahalbidetzen dutelako dira garrantzizkoak. Jardueraren edukia bera baino garrantzitsuagoa da ekintza bakoitzak pertsonarentzat duen esanahia eta denbora.

Aisia definitzeko erabili ditugun erreferentzia nagusiak, beraz, denbora, bizipen subjektiboki librea eta gozameneko garapen pertsonala izan dira. Horrela, aisiarekin lotuta dauden jarduerak eta, nahiz eta denbora librean burutu, aisiarekin lotuta ez dauden jarduerak bereizi ahal izango ditugu. Adibidez: gure lanbiderako osagarriak diren ikastaroetan eman dezakegu denbora librea, baina gehienetan ez jarduerak, ez helburrak, ez bizipen subjektiboak ez dute gozamenarekin, dibertimenduarekin edo atsedenarekin loturarik izango. Ez dute aisiaren jarrera subjektiboekin loturarik izango; beraz, zeregin horietan ematen dugun denbora ez dugu aisialditzat hartuko.

Orain gutxi arte, haur eta gaztetxoan aisialdia eskola denboratik kanpoko denboratzat hartu izan da. Denbora libre horretan kalean jolas librean igarotzen duten denbora gutxituz joan da, eta aldiz, eskolatik kanpoko formazio akademikoari eskainitako denbora handitzen. Hasieran aipatzen genuen "Aisialdia= Denbora Libre + Askatasuna + Gozamena" ez dator bat gizarteak gaur egun aisialdiari buruz duen ideiarekin. Denborari dagokionez, eskolatik kanpo gelditzen zaion denbora hartzen da denbora libretzat. Askatasunari dagokionez, beraien nahietatik aldenduta egon daiteke askotan, gurasoen nahiak nagusitzen baitira; beraz, erabateko askatasuna ez da beti ziurtatzen. Gozamenari dagokionez, derrihortasun mailak gora egiteak gozamena gutxitzea ekar dezake.

---

*Tradizionalki ikastetxeek haurren aisialdian eskuhartze handirik izan ez badute ere, azkenaldian, eskolek aisialdiko eragile gisa duten pisua gero eta handiagoa bihurtu da. Esku-hartze hori eskola orduetatik kanpoko ekintzetan (kirola, musika, antzerkia...) eta bestelako aisialdi jardueretan gertatu da (udalekuak, egonaldiak, ludotekak...). Horrekin batera, azken urteetan, euskararen normalizazioan lanean ari diren eragileek lan horretan aisialdiak duen garrantzia azpimarratu eta hizkuntza geletatik ateratzeko beharra azpimarratu dute*

**Ohikoa da haur eta gaztetxoek, eskola orduak amaitutakoan, eskolatik aparteko zereginak egin behar izatea. Besteak beste, hizkuntzak direla, musika eta informatika direla, edo kirola eta aparteko eskolak direla, haur eta gaztetxoei betebeharrak egokitzen zaizkie, eskolako gain. Horrek guztiak eskola denbora ez den eta aipatutako zereginetan aritzeko denbora ez den bestelako denbora murriztea ekarri du ondorioz; antolatu gabeko denbora murriztea, alegia. Bide horretatik, haur eta gaztetxoek aisialdian behinik behin, betebeharrak eta formazio erantsiari eskainitako denbora handitu egin da azken urteetan.**

**Horrek "aisialdi hezitzailea" eta "heziketa denbora librean" kontzeptuak bereiztera garamatza.**

## **AISIALDI HEZITZAILEA ETA HEZIKETA DENBORA LIBREAN**

Ohikoa da haur eta gaztetxoek, eskola orduak amaitutakoan, eskolatik aparteko zereginak egin behar izatea. Besteak beste, hizkuntzak direla, musika eta informatika direla, edo kirola eta aparteko eskolak direla, haur eta gaztetxoei betebeharrak egokitzen zaizkie, eskolako gain. Horrek guztiak eskola denbora ez den eta aipatutako zereginetan aritzeko denbora ez den bestelako denbora murriztea ekarri du ondorioz; antolatu gabeko denbora murriztea, alegia. Bide horretatik, haur eta gaztetxoek aisialdian behinik behin, betebeharrak eta formazio erantsiari eskainitako denbora handitu egin da azken urteetan.

Horrek "aisialdi hezitzailea" eta "heziketa denbora librean" kontzeptuak bereiztera garamatza. Hala, eskola orduetatik kanpoko jardueren izaera zehaztuko dugu.

- Heziketa denbora librean: denbora libreaz formazio akademikoa eta profesionala osatzeko baliatzea. Denbora libre hori oso egitura-tua, antolatua eta formala izango da. Betebeharrerako denboratik hurbilago egongo da, aisiarako denboratik baino.
- Aisialdi hezitzailea: denbora librean gozamina, dibertimendua edo garapen pertsonala modu esplizituan. Dimentsio ludikoa, kognitiboa, etikoa eta soziala (gogoeta, harremanak, ekimena, konpromiso kolektiboa, inguru hurbileko ezagutza...) bete-betean agertuko zaizkigu.

Beraz, eskola orduetatik kanpoko jarduerak "Heziketa denbora librean" multzoan sartzea logikoa dirudi, nahiz eta askotan mugak oso argiak ez izan. Zehaztapen hori oso lagungarria da jarduera hauetan hizkuntza-ren normalizazioari begira egiten diren plangintzak zehazteko, eta hezitzaileen lana eta formazio beharrak programatzeko.

Multzo horretan kirolarekin eta kulturarekin egiten diren ekintzak sartzea ohikoena da: eskola-kirola, antzerkia, margolaritza, dantza, bertsoaritza, musika eta abar. Hizkuntzen normalizazioari dagokionez, interesgarria deritzogu eskolan, eremu ez-kurrikularrean egiten diren beste bi jarduera mota multzo horretan sartzeari: jangela eta irteerak (eguneko edo egun gehiagokoak). Izan ere, jarduera horietan haur taldeen dinamizazioa eta zaintza irakasleen esku geratu ordez, gehienetan, begiraleen esku geratzen da eta zehaztapen hori oso garrantzitsua da hizkuntza planifikazioa egiteko garaian.

## **BEGIRALEEN FORMAZIO OROKORRA ESKOLA ORDUETATIK KANPOKO**

Aisialdiko eta denbora libreko jardueretan profesionalki edo boluntario-ki lan egiteko zehaztuta dagoen oinarritzko titulazioa *Haur eta gazteen*

*aisialdirako begirale agiria* da. Eskola orduetatik kanpoko jardueretan lan egiteko ikastaro horretan luzatzen den agiria edukitzea ez da derrigorrezkoa, ezta beste inolako agiririk ere; beraz, egun jarduera horietan diharduten langile gehienek ez dute inolako formazio espezifikorik izan.

### **Araututako formazio orokorra**

Euskal Herriko zatiketa administratiboa kontuan izanik, formazio ikastaro hauek ez daude berdin araututa. EAEn, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak kudeatzen ditu agiri hauek, homologatutako 22 eskolen bidez. Nafarroan, Gazteria eta Kirol sailaren eskuetan daude begirale ikastaroak. Bertan, *Escuela Navarra de Actividades con Jóvenes* izeneko aisialdirako eskola publikoarekin batera beste zazpi eskola daude. Ipar Euskal Herrian, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kirol eta Gazteria sailak arautzen ditu begirale ikastaroak eta euskal hiru lurraldeetan eskolarik ez dagoenez, Paue edo Bordeleko Francas eskoletara jo behar da begirale agiria lortzera.

Zatiketaren ondorioz, ikastaroen ezaugarrietan ere aldeak daude. Iraupena da alde nabariena; toki guztietan praktikari garrantzia ematen bazaio ere, Frantzia 240 orduko ikastaroak dira (64 ordu teorikoak), Nafarroan 270 ordu dira (120 ordu teorikoak) eta EAEn, 320 orduko formazioa eskatzen da (200 ordu teorikoak).

### **Euskara araututako formazioan**

Baina artikuluko honetarako interesgarrienak izan daitezkeen datuak hizkuntzarenak dira; begirale formazioa zer hizkuntzatan jasotzeko aukera eskaintzen den eta soziolinguistikak zer toki duen ikastaro hauen programan. Bildutako datuen arabera, mota honetako formazioa euskaraz hartzeko aukera urria da. Bizkaian 4 eskolek eskaintzen dute begirale ikastaroa euskaraz, eta Gipuzkoan, berriz, 3 eskola daude euskarazko eskaintzarekin. Gainontzeko lurraldeetan ez dago mota honetako euskarazko formazioa ematen duen eskolarik.

Ikastaro horien ikasketa programari erreparatuta, oro har, eskola batetik bestera aldatetak egon litezkeen arren, lantzen diren gaiak lau multzotan biltzen dira: aisialdirako soziologia, aisialdiaren psikopedagogia, heztera bideratutako interbentzioaren oinarriak eta aisialdirako teknikak. Gai horiek dekretuz erregulatuta daude, nahiz eta, eskola bakoitzari malgutasuna uzten zaion gaiak eta gaien iraupena zehazteko. Soziolinguistikarekin zuzenean lotutako edukiak ez dira ezin dekretutan derrigortzen; beraz, eskola bakoitzaren esku geratzen da gaia hauen tratara. Ondorioz, begirale formazioa euskaraz eskaintzen duten eskolen artean ere soziolinguistikari ematen zaion denbora ez da oso handia izaten eta, batzuetan, ez da programetan agertu ere egiten. Beraz, begirale agi-

---

*Begirale formazioa euskaraz eskaintzen duten eskolen artean ere soziolinguistikari ematen zaion denbora ez da oso handia izaten eta, batzuetan, ez da programetan agertu ere egiten. Beraz, begirale agiriak oso gutxitan bermatzen du hezitzaile batek egoera soziolinguistikoaren inguruko eta hizkuntza trataerari buruz hausnarketarik egin duenik.*

---

*Eskola orduetatik kanpoko ekintzetan aritzen diren langileen lan baldintzak oso eskasak dira eta gehienetan heziketa lana egiteko aukera eta baliabide gutxi izaten dituzte; kirol eta kultur eskolen begiraleek, gehienbat, edukiak transmititzen dituzte, eta jangeletako begiraleek zaintza lana egiten dute. Horregatik, hizkuntza helburuak ezartzen diren kasuetan, azalekoak edo itxurazkoak izan ohi dira.*

riak oso gutxitan bermatzen du hezitzaile batek egoera soziolinguistikoaren inguruko eta hizkuntza trataerari buruz hausnarketarik egin duenik.

Gainera, aurretik aipatu dugun moduan, eskola orduetatik kanpoko jardueretan lana egiten duten hezitzaileen artean oso gutxi dute honelako formaziorik. Kirol eta kultur jardueretan oso ohikoa da ikasle ohi gazteak lanean aritzea eta, gehienetan, denbora laburrez aritzen dira (ikasturte bat edo bi). Jangeletako begiraleen artean ere antzeko egoera aurkituko dugu; begirale gehienek gai hauetan formaziorik ez duten langileak dira. Dena den, hemen ohikoagoa da urte luzez lanean aritzen den langileria topatzea. Azkenik, irteeretan aritzen diren begiraleen artean egoera aldatzen da; geroz eta arruntagoa baita egonaldi hauek eskolatik kanpoko erakundeen bidez egitea: aisialdi elkarteak, enpresak... Hori dela eta, gehienetan, begiraleek *Haur eta gazteen aisialdirako begirale* formazioa dute.

## **HIZKUNTZARI BURUZKO FORMAZIOA ESKOLA ORDUETATIK KANPOKO HEZITZAILEENTZAT**

Ikusi dugunez, eskola orduetatik kanpoko ekintzetan aritzen diren begiraleek ia ez dute soziolinguistika eta hizkuntza trataeraren inguruko prestakuntzarik. Horrek ez du esan nahi euskararen normalizaziorako lanik egiten ez dutenik. Askok, saiakera handia egiten baitute, eta eskoletan gero eta arruntagoa da hezitzaile hauei euskararen erabilera sustatzearen aldeko lana eskatzea. Baina lan hori egiteko baliabide gutxi dutenez, intuizioz aritzen dira eta, askotan, beraiek txikitik eskoletan ikasitako ereduak errepikatuz. Horri eskola orduetatik kanpoko jardueretan lana egiteko euskaraz jakitea ez dela beharrezkoa gehitu behar zaio. Horrelako lana egiteko ez da hizkuntzaren gaitasuna exijitzen eta askotan ez zaio garrantzirik ematen.

### **Hezitzaileen zalantzak eta formazio beharrak**

Hala ere, azken urteetan, aisialdiko begiraleei zuzendutako formazioa eskaintzen dugun elkarteetan, eskola orduetatik kanpoko begiraleak hizkuntzaren sustapenean formatzeko eskaerak handitu direla nabaritu dugu. Halakoetan, eskoletako arduradunen eta begiraleen eskaerak bi multzotan sailkatzen dira. Alde batetik, behar metodologikoak nabaritzen dira: motibazioa pizteko modua, erabilera handitzeko estrategiak... Bestetik, tresnak behar izaten dituzte: jolasak, kantalak, hizkuntza ez-formala... Adibide moduan, Ermuko jangeletako begiraleen artean bildutako zalantzak eta trebatzeko eskaerak erabiliko ditugu, bertan agertzen direnek sektore honetan topatzen diren beharrak ondo adierazten dituztelako:

*– Haurrek euskara erabiltzeko joerarik eza nondik datorren (jatorria) eta zer irtenbide eman. Metodologia bateratua landu.*

- Nola jorratu euskara erdalduna den haur batekin.
- Zer egin behar dugun erdaraz hitz egiten duten haurrekin, zer egin eta nola erakutsi.
- Euskaraz ez dakiten haurrekin zelan lan egin, Hirugarren mailakoekin aurrera zelan lan egin.
- Haur txikiekin (ez dakitenekin) zelan jokatu
- 9-10 urtetik aurrera euskarazko giroa nola lortu edo landu.
- Haur nagusiak euskaraz egiteko motibazioa areagotzeko arauak.
- Zigor gabeko euskararen sustapena eta erabilpena nola landu.
- Begiraleen arteko harremanak euskaraz izateko estrategiak.
- Kultur aniztasuna eta euskara.
- Materiala (jokoak, abestiak) ikastea edo ezagutzea, Nola moldatu gure hizkera beraien esamoldeekin, hitz berriekin eta beraien hizkerarekin. Batez ere, adinaren kontuan hartuta, eurengana hurbildu ahal izateko.
- Haurren motibazioa areagotzeko zer erabili (jokoak, esaldiak...) eta zer ez.
- Jokoak, abestiak eta abar.
- Mintzamina lantzeko tresnak.

Ingurune soziolinguistikoak ñabardurak markatuko ditu eta zenbait tokitan erabilera handitzeko estrategiei emango diete garrantzia eta, bestetan, motibazioaren inguruko beharrak azpimarratuko dituzte. Baina gure esperientziaren arabera, begiraleen artean eta hizkuntza teknikariaren artean, zalantza eta behar hauek oso antzekoak dira eta lurralde guztietan errepikatzen dira.

## **Hizkuntza normalkuntzarako formazio plangintza**

Aipatutako zalantza eta beharrak ikusirik, eskola orduetatik kanpoko begiraleek hizkuntzari buruz jaso beharko luketen formazioa orokorra zehaztu daiteke.

### **1. Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak**

Atal honen helburua soziolinguistikako oinarrizko kontzeptu garrantzitsuenak jaso eta lantzea da. Lantzen diren edukiak:

- Soziolinguistika zergatik eta zertarako: hitzaren esanahia eta bilakaera, hiztuna, hizkuntza komunitatea.
- Berreskuratze prozesua: funtzioak, optimizazioa, lurraldetasuna.

### **2. Eskola orduetatik kanpoko hezitzaileen eginkizuna hizkuntza normalizazioan**

Zati honen helburua eskola orduetatik kanpoko arloaren garrantzia eta hezitzaileen lanerako estrategiak eskaintzea da. Hori eduki hauen bidez egiten da:

- Eskola orduetatik kanpoko tarteen garrantzia berreskurapenean: tarte hauen izaera, orain arte egin dena eta emandako emaitzak, nola jokatu eraginkortasunez?
- Begiraleen eginkizuna: motibazio estrategiak hezitzaileentzat, begiralearen kokapena, egoera zehatzei aurre egiteko baliabideak.

### **3. Euskararen erabilera sustatzeko tresnak**

Puntu honen helburu nagusia erabilera areagotzeko tresna zehatzak ikaslea da. Edukiak bi multzotan banatzen dira:

- Hizkuntza tresnak: hitz jolasak, lokuzioak, igarkizunak, onomatopeiak, atsotitzak...
- Dinamizaziorako tresnak: talde jolasak, mahai jolasak, abestiak...

### **4. Programen planifikazioa**

Azken atal honetan helburua programen planifikazioan trebatzea litzateke. Horretarako bi puntu jorratzen dira:

- Programen antolakuntza: datu bilketa, diagnostikoa, helburuak, programazioak, ebaluazioa.
- Adibide praktikoak.

Gure ustez, hori litzateke eskola orduetatik kanpoko hezitzaileek beharko luketen formazioa. Dena den, aurrerago aipatuko diren baldintzak direla eta, gaur egun zaila da mota horretako prestakuntza ematea. Beraz, ohikoagoa da eskema hau erabiliz, tokian tokiko behar zehatzetarako prestatutako modulu motzak egitea. Adibidez<sup>2</sup>: Euskarazko jolasak, Euskararen sustapena jantokian, Hezitzaileek asko egin dezakete, Jangela ondorengo tarterako dinamizazio programazioak, Kirol entrenatzaileentzako motibazio estrategiak...

### **Eguno egoera hobetzeko proposamenak**

Aurreko puntuan eskola orduetatik kanpoko begiraleentzat egokia litzatekeen formazioaz aritu bagara ere, onartu behar da egungo arlo honetako egoerak tarte eskasa uzten duela prestakuntza hau behar bezala burutzeko. Azken urteetan maiz aipatu da aisiak duen garrantzia euskararen normalizazioan eta euskara ikasgeletatik ateratzeko beharra. Dena den, aipamen horiek gehienetan beren horretan geratzen dira; aipatzen dira baina plangintza eskasa sumatzen da arlo honetan. Ondorioz, ohikoa da euskaraz gaitasun nahikoa ez duten begiraleak lan hauetan topatzea.

Bestalde, eskola orduetatik kanpoko ekintzetan aritzen diren langilean lan baldintzak oso eskasak dira eta gehienetan heziketa lana egiteko aukera eta baliabide gutxi izaten dituzte; kirol eta kultur eskolen begira-

leek, gehienbat, edukiak transmititzen dituzte, eta jangeletako begiraleek zaintza lana egiten dute. Horregatik, hizkuntza helburuak ezartzen diren kasuetan, azalekoak edo itxurazkoak izan ohi dira. Lan baldintza txar horien ondorioz, zaila da begirale hauei beste profesionalei eskatzen zaien formazio eta hizkuntza plangintzen arabera lana egin dezatela existitzea. Beraz, langile horien lan baldintzak hobetzearekin batera, egungo egoera ikusita, hainbat proposamen egingo ditugu:

**1. Eskola orduetatik kanpoko arloari hizkuntza berreskuratzeko duen garrantzia ematea.** Horretarako, jarduera hauek ikastetxeetako normalkuntza plangintzatan kontutan hartu behar dira. *Ahozkotasuna eremu ez-kurrikularrean* artikuluan aipatzen den moduan: “*Boron-daterik onenaz egindako eta burututako ekintza bakartuak eta egitasmo solteak egitea gaindituz, xedeak lortzeari begirako plangintza baterako urratsak egin behar dira. Bada, hariari tiratuz, ikastetxeko hizkuntza normalkuntzarako eta euskararen erabilerarako plangintzan eredu ez-kurrikularra ere lantzea behar beharrezkoa da.*” (4)

**2. Arlo honek hizkuntza normalkuntzarako dituen abantailaz baliatzea.** Askotan aipatu den bezala, errazagoa baita hainbat alderdi gelatik kanpo lantzea: ahazkotasuna, hizkera ez-formala, motibazioa... Tarte horiek euskaraz lagunartean ondo pasatzeko aukera ezin hobe eskaintzen dutenez, eremu egokia da euskararen motibazioa, gaitasuna eta erabilera sustatzeko. Hau da, euskara era positiboan jasotzeko aukera eskaintzen dute.

**3. Eskola orduetatik kanpoko langile guztien euskararen gaitasuna bermatzen dela ziurtatzea.** Proposamen hau aurreko bi puntuekin estu-estu lotuta dago, izan ere, zaila litzateke eskola orduetatik kanpoko jarduerak hizkuntzaren normalkuntzan duten garrantzia onartzea, bertan lana egingo duten begiraleek euskaraz ez badakite.

**4. Begirale hauei formazioa eskaintzeko baldintza egokiak bermatzea.** Horretarako beste hezkuntza langileekin programatzen diren antzeko prestakuntza planak sortuz (Irale, Erabil...) edo dagoeneko sortuak dauden horietan txertatuz.

Hezkuntzaz arduratzen diren instituzioekin batera arlo honetan lanean ari diren erakunde guztiek parte hartu beharko lukete proposamen hauen, eta egon daitezkeen beste batzuen, eztabaidan eta plangintza orokorrean: elkarteak, enpresak, aisialdi eskolak, sindikatuak, ikastetxeak... Gainera, ez dirudi garai txarra denik, EAEn hizkuntzak irakatsi eta ikasteko marko berria eztabaidatzen ari den une honetan, geletan landuko den hizkuntzarekin batera, eskola orduetatik kanpoko jardueretan zer nolako hizkuntza trataera landu nahi dugun zehazteko eta baliabideak jartzeko.■



## **BIBLIOGRAFIA**

- Berrio-Otxoa, K.; Hernández, J.M.; Martínez, Z. *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan*. Gipuzkoako Foru Aldundia (2000)
- Susperregi, Izaro: “Euskal aisiaren azterketa”, in Hizkune, [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) (2006)
- “Aisialdiko hezkuntzaren labirintuan barna” in Aisia Biziz, 2 (2004), 18-19
- Iturriza, Marga; Eizmendi, Iñaki. “Asko egin dezakete begiraleek”. Ttakun Kultur Elkartea. (2003)
- Amonarriz, K.; Arruti, I.; Osa, E. “Ahozkotasuna eremu ez-kurrikularrean”, in Erabili.com. [www.erabili.com](http://www.erabili.com) (2004)

## **OHARRAK**

1. Ermuko Euskara Zerbitzuak 2007. urtean herriko jangeletako langileen artean bildutako eskaerak, zalantzak eta beharrak dira.
2. Mota horretako ikastaroak Gipuzkoako Urtxintxa Eskola eta Ttakun Elkartek eskaintzen dituzte. Informazioa web orri hauetan topa daiteke [www.aisia.net](http://www.aisia.net) eta [www.ftakun.com](http://www.ftakun.com)